



## ZERBITZU EGINKIZUNAK DEIALDI OROKORRA



- **Zerbitzu-eginkizunak eskatzeko egoerak:**

- Osasun arrazoiengatik aukera hauek daude:
  - Lanpostuaren baldintzak egokitzea.
  - Eskola-orduen 1/3ko murrizketa izatea.
  - Ikastetxe berean edo beste batean lanpostu ezberdina ematea.
  - Funtzio ez-dozenteak egitea.
- Senitartekoen gaixotasun larria.
- Kargu hautetsietan jardutea.
- Irakaskuntza-arrazoiak.

- **Parte-hartzaileak:**

- Karrerako funtzionarioak
- Urte osoko lanpostua duten ordezkoeak (bakarrik eskola-orduen 1/3ko murrizketa eskatzeko).
- Lan-legepeko irakasle finkoek, salbuespenez.

**Eskabideak aurkezteko epea: martxoaren 14tik 31 arte (barne)**

### OHARRAK:

- Deialdi honek berritasun garrantzitsu batzuk dauzka. Eskabidea aurkeztu baino lehen, arretaz irakurtzea gomendatzen dugu.

- Beranduago hainbat zerbitzu eginkizunetarako deialdi aterako dira: eskola txikiak, Berritzeguneak, Irale, Ingurune baztertuak, CAHDTE... deialdiak atera ahala gure web orrian jarriko ditugu.

STEE-EILASek salatzen du gaixorik dauden irakasleekiko administrazioak duen jarrera. Jasanezina da dozentzia lanetan ez dauden irakasleei bi urte baino gehiago daramatenean behin-betiko ezintasunaren balorazioa eskatzera behartzea. Berrito ere administrazioak langileekiko sentsibilitate eza agerian uzten du eta kolpe batez hainbat lanpostu bertan behera utzi nahi ditu.